

Euskal AEko eraikuntzaren sektorea %8,5 hazi zen 2005eko hirugarren hiruhilekoan


Datu horien arabera, urteko lehenengo bederatzi hileko hazkunde metatua 7,9ra iritsi zen

EUSTATEk landutako datuen arabera, Euskal AEko eraikuntzako jarduerak 2005eko hirugarren hiruhilekoan %8,5eko hazkunde nominala izan zuen, lan egutegi homogeneoan, 2004ko hiruhileko beraren aldean. Urteko lehenengo bederatzi hilabeteen %7,9ko hazkundera izan zen, aurreko urtearen aldi berarekin alderatuta.

Hiruhilekoak euren artean alderagarriak izan daitezten urtaroen eraginak zuzenduta, aurtengo hirugarren hiruhilekoan eraikuntzaren jarduera %2,1 hazi zen 2005eko bigarren hiruhilekoaren aldean, eta azelerazio arina agertu zuen (%0,3) aurreko hiruhilekoaren hil arteko tasaren aldean.

Euskal AEko Eraikuntzaren Kointurako Indizearen urte arteko hiruhilekoko hazkunde zuzendua

% hazkundera



Iturria: Eustat

2005eko hirugarren hiruhilekoan eraikuntza-sektorearen bilakaera gehiago oinarritu zen *eraikuntza* azpisektorean, *obra zibila* azpisektorean baino. Izan ere, lehenak urte arteko %10,4ko igoera izan zuen, eta bigarrenak, berriz, %3,3koa. Termino metatuetan posizioak mantendu egin ziren: *eraikuntza* %10,3 eta *obra zibila* %4,2 hazi ziren joandako hiru hiruhilekoetan.

Hiruhileko arteko terminoetan, 2005eko hirugarren hiruhilekoko sektorearen jardura 2005eko bigarren hiruhilekoan izandakoarekin alderatuta, *eraikuntza* azpisektoreak %2,3ko bilakaera positiboa izan zuen eta *obra zibilak* neurritsuagoa, %1,5ekoa.

2005eko hirugarren hiruhilekoan, eraikuntzaren sektoreko enplegua %1,2 gehitu zen aurreko urteko hiruhileko berdinen aldean, eta %0,5eko hiruhileko arteko hazkundera lortu zuen, 2005eko bigarren hiruhilekoaren aldean.

Taula: 2005eko 3. hiruhilekoa. Euskal AEko Eraikuntzaren Koiuntura Indizearen aldakuntza-tasak (%).

Kontzeptua	Zuzendua		Desestazionalizatua	
	3.hir.05/3.hir.04	At/At-1 (1)	3.hir.05/2.hir.05	2.hir.05/1.hir.05
Produkzioaren indizea	8,1	8,4	2,1	0,3
Eraikuntza	10,1	10,3	2,3	2,6
Obra zibila	3,7	4,2	1,5	-4,8
Landunen indizeak	-	-	0,5	0,5

(1) t urteko urtariletik t urteko azken hiruhilekora arteko aldi metatuaren urte arteko aldakuntza-tasa, t-1 urtearen aldi beraren aldean

Iturria: Eustat

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 01 75 00 Faxa: +34-945 01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Perez Aja

Tel.: +34-945 01 75 06. Faxa: +34-945 01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp